

+ Anaitasuna

VIII URTEA - N.º 95

Boletín Legal SS. 1092—1959

Suplemento de la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

ZEMENDIA (II) 1962

ELEIZ-BATZAR NAGUSIAREN ALDE

Illabete igaro da ia kontixu Eleiz-Batzar nagusiak bere atear egegi ebazanetik ona. Gauza bat eskatzen deuskue egun onetan Aita Santuak eta Obispoek, beste guztiak taño lenago: OTOITZA. Ara or zure begien aurrean Aita Santuaren otoitza Batzar nagusi onen asmoakaitik, egunero al baduzan esan dagizun:

Espiritu Santua, zeruko Aitak Jesusen ize-rean biaduta, Eliza Ama oker bagarik gorde eta zuzentzen dozuna! Zugana gatoz laguntza-eske: zure doai guztiak mundu guztiko Eliz-Batzar aundi onetan ixuri egiaz!

Irakasle gozo ta pozgarria! Aita Santuaren deia aintzat artuta Batzar au osotu da-been Eliz-Buru guztiak zure goi-argiz argitu egizuz.

Eliz-Batzar onek ondorengo ugariak sortu dagizala; Ebanjelioaren argia gizonen ar-razo geroago eta urrutia go eldu dedilla; kristiñau-sinismenak indar barria artu dagia-

la, eta baita beran erri guztietara eroateko mixiñoi-ekintzak bere; Eleiz Amaren irakatsiak ezagutu ta sakondu ta kristiñau-oi-tura osasungarriak geiago ta geiago zabaldu ditezela.

Arimen bizilagun gozoa! Gure adime-nean egia sendotu ta gure biotza menpetasun-nera makurtu egizu, Eliz-Batzar onen ar-tuak eta erabakiak gogo zabalez aintzat ar-tuaz egikera lasterrez bete dagizun.

Baita Jesukristoren artegi bakarretik kan-pora bizi direan ardien alde bere erregutzen deitsugu, kristiñau-izena oraindiño gogoz daroien ezkerro, batasuna Artzain bakarraren menpen arkitu dagien.

Sortu egizu, arren, gure egunetan Pente-kostes barri bat, orduko mirariak barrizturik, Eliza Santuak, Maria Jesusen Ama lagun dala, alkar-otoitz bardin ta beroagoan alkar-tuta, ta San Pedro biderakusletzat dankola, gure Jaungoikozko Salbatzaillaren erreñua, mundu guztian zabaldu dagian. Amen.



Eleiz-Batzar

Nagusia

dala-ta

* Lau Kardinal bakarrik gelditu dira Erromara agertu barik: Ungriako Mindszenty, Cubako Arteaga, Bordeleko Richand ta Italiako Micara.

* Kontzilioa asi baiño lau egun lenago Kongoko obispo barri bat izendatua izan zan, baiña mitra barik agertu zan sarrerako prozesiñoan, artean konsagratu bage egoalako.

* Kontzilioan bi milla ta bosteun (2.500) Batzar-Guraso dagoz. Milla ta seireun eta amabi, eunkida onetan jaiotakoak dira;

milla ta irurogei ta amabi, barriz, emertzigarren gizaldikoak.

* Carinci gotzaiñak Vatikanoko Lenengo Batzar Nagusia ezagutu eban. Gogoan dau zelan 1866-garren urtean, berak 7 urte eukozala, asi zan Ogeigarrèn Eleiz-Batzar Nagusia.

* Diego Fabbri zinemagilleak Kontzilio gainean pelikula bat egiteko asmoa dau. Dokumentala ez ei da izango, dokumentua baiño. Aita Santua agertzea ez litzake arritzekoa izango. Kontzilioa amaitzen denerako ba-leiteke prest egotea.

* "Telstar" -ek be eroan dauz Batzarreko bariak Europatik Ameriketara. *Televisiño-ko izarra* esan gura dau.

* Ortodoxoak eta Eleizatik kanpora dagozan gaincrako kristiñau-buruen ordezkariak ondo erantzun dabe. Aita Santuarekin anaitasunik maitagarrienean egon dira, alkar-ikustera deitu deutesenean.

* Moskutik Ortodoxoen eleiz-ordezkari bi agertu dira lenen Kontzilia. Irugarrena be azaldu da geroago. Bulgaria ta Rumaniatik be ba-datoz. Konstantinako Patriarkaren ordezkaria be ziur agertuko dala diñoe. Ta Griegoen Eleiz-Ordezkaria be azalduko dala uste dabe.

* Kontzilioak urte bete iraungo dau. Eta Batzarraldiak lenengo Gabonak alderarte izango dira. Gabonetan Obispo geienak etxeratuta egongo dira, barriz ere Pentekostes egunetan Erroman batzeko. Irugarren eta azken billera datorren urteko urrian egingo dabe.

* Esaten dabenez, Aita Santuak urtenaldi bi egingo dauz urte onetan. Bat Montecasino-ra, aurreko gerrate aundian apurtuta barrero jaso daben Abadia konsagratzeko. Trenez joango ei da. Aita Santua bere errira be joango da. Bergamo-ko Seminario Aundi barria bedeinkatzeko urten-go dauanean. Ibillaldi au abioiez egingo dauala diñoe.

* Kontziliarako bildu diran Obispoen artean, Carinci da zaarrena 100 urtekin. Gazteena barriz, Mendoza Castro obispoa, perutarra. 34 urtekin.

* Eleiz-Batzar Nagusira etorrela, biotzeko gaitzak jota, Napoles-en il zan Kontzilia asi bezperan, Indian obispo zan John Foster obispo prantziskotarra. Izatez inglesa zan, Liverpool-en 1895-garrenean jaioa.

* Mundu guztiko periodistak batu dira Erroman: 200 ingles izkuntzakoak, 130 italiarrak, 70 prantzesak, 70 alemanak, 35 holandesak, 25 españolak, 22 suiztarrak, 18 belgarrak, 15 Yugoslaviarrak, 14 kandidatarrak, 13 argentinok, 12 brasildarrak, eta Dinamarca, Suezia, Grezia, Polonia, Egipto, Ungria, Israel eta Rusiako korrespontsalak.





BIZKAIKO

ITXASOTIK

Bizkaiko itxasoa, aundia da. Kostaldetik eskumatarantz, Frantziko Bretainirarte eltzen da; eta ezkerretarantz, Espainiko Galizian amaituten da. Puntu bi orreen arteko itxasoari, Inglesak *Bizkaiko Kolkoa* deituten deitue. Eta izen ori mundu guztian zabaldu da.

Euskaldunak, zelan deituten deitsagu gure itxasoari? Nik dakidala, erriak ez deitue aparteko izenik emoten. *Gure mandako itxasoa* deituten deitue Bermeotarrak. Orregaitik, nire ustez, izen espezial bat emotekotan, *Bizkaiko Itxasoa* emon bear geunskio, eta ez —eskritore batzuk egiten daben lez— *Kantauriko Itxasoa*. Nik beñik bein, aolanxe idatziko dot beti.

Bizkaiko Itxaso erdian nago. Atzo gabean ikusi genduan Bretainiko azkenengo farola. Etzikaramu elduko gara Bilbaora. Astia naikoa daukot, neure biajearen gainean zeuri zeredozer esateko.

Agur Irlanda

Billeta diretua artu neban Dubliñetik Londresera. Jente asko egoan estaziñoan trenari begira. Jente larregi. Irlandatik lagun asko joaten da Inglaterrara. Irlandan industria gitxi dago; eta al dabenak, erbestera joaten dira lan bila.

Orañ eundaz urte, zortzi milloi bizi zirean Irlandan. Gaur egunean barriz, lau milloi bakarrik. Erbestera doazanak, aberrian jayoten direanak baiño geyago dira. Problema ikaragarria naziño baten bizitzarako. Eta problema au geitu egingo da urrean, Irlanda Menkatu Komunean sartzen danean.

Gobernu artekadu dabil aspaldion orregaitik. Goiz atan, pasajeru guztiori paper bat emon euskuen betetako. Ea nongoak garean, nora goazan, ze ofizio daukogan,

erbestera zetarako joaten garean, eta abar. Gobernuak datu guztiak euki gura ditu eskuan, emigraziño problema oneri soluziño on bat emon al izateko.

Eleizako agintariak barriz, trankillago ikusten ditue gauzak. Eurak fede aundia dauke Jaungoikoaren probidentzian; eta uste dabe, emigraziño au munduaren onerako dala, Irlandesak eurakaz batera kristiñau erlejiñoa edonora eroaten dabe-ta. Au egia da; esan dayela osterantzean Inglaterra, Australia ta Nortamerikako katolikoak. Bestelakoa izango litzake gaur egunean naziño orreetako katolizismoa, Irlandesak aldraka bertara joan ez balira.

Dubliñetik, itxasertzeko erri txiki batera joan giñean; eta an, Inglaterrarako barkua artu genduan.

Londreserantz

Barkura igon orduko, ainbeste denporan egon giñean itxaroten. Danok zutunik, maletak eskuan, itxaron ta itxaron, barkuan noiz sartuko. Alandabere, jente guztia ixil ixilik egoan, trankil trankil, barkuko agintarien kontra berba garaurik esan barik. Orduan, gogora etorri jatan zer egingo geunken guk euskaldunok, olako kasu baten bagengoz; eta, egia diñotsuet, lotsatu egin nintzan estranjereuen edukaziñoaren aurrean. Zelakoak garean jakiteko, gauza onai izaten da estranjeriara joatea. Asko ikasten da beti.

Azkenean, sartu giñean barkuan, eta asizan itxasontzia Inglaterrazka. Laster egin genduan trabesia. Iru orduan-edo, uste dot. Egon-bere, distantzia aundirik ez dago Irlanda ta Inglaterraren artean. Itxaso erdian gengozala, ikusi egiten genduzan kostalde biak.

Inglaterrara eldu giñeanean, antxe egoan gauri begira Londreserako trenan. Artu neban neure lekua, ta preparatu nintzan alik ondoen bialjea egiteko, naiz irakurten, naiz errezetan, naiz leytok kanpora ikusten.

Manda batetik bestera igaro genduan Galesko iparraldea. Playa asko dagoz alderdi onetan. Ingles turista asko etorten dira bertora. Nik beintzat ez dot ikusi, eta bearbada ez dot inoiz ikusiko, emengo camping tokietan ikusi dodan-beste erremolka kotxerik. Bistea nora, ararte zabaltzen zirean errobedadun etxeok. Lastima aundia, Ingalaterrako eguraldia ohea ez izatea. Jente asko ikusi neban ondartzan jazarrita, eguzki apurtxu bat artzen, erropa ta guzti otzaren otzagaz. Espainian beñik bein, auxe daukogu ona... ta merkea: eguzkia.

Arratsalde beranduan allegatu nintzan Londredera, eta zuzen zuzen joan nintzan Frantziskanoen komentura. Auxe da fraileen bentajea: edonon daukogu komenturen bat. Baiña Londreseko bizimodua, guztiz karua da Espainiolentzat. Ogetalau txelín (berreun peseta) kendu eustazan taksitxoferak, estaziñotik komentura.

Rotterdam

Urrengo egunean, Londreseko portuan, espainiol barku bat artu neban. Kargako barkua. *Islas Canarias*, bere izena. Betiko lez, euskaldunak aurkitu nituan barruan. Kapitana, Gazteizkoa; lenengo ofiziala, erdi Elantxobetarra; ikamarerua, Bilbaokoa.

Asko poztu nintzan, kapitanak esan eustanean, lenengo Rotterdamera joan bear genduala. Olan, munduko bigarren portua ezagutuko neban eta bertako "Stella Maris" en egongo nintzan.

Egia da gero! Rotterdam da Europako porturik aundiena; eta New Yorkekoaren atzetik, mundu guztian trafikorik geyen daukona. Lafogetaz barku sartzen dira egunean, eta beste orrenbestek urtetan dabe kanporantz. Atara kontuak. Rotterdamen, 150 pratiko dagoz; Bilbaon barriz, 12 bakarririk.

Portuaren ondoan dago Itxas Apostoladuko Etxea. Etxe ederra, barria, aundia, Liverpoolekoaren antzekoa. Euskalerriko itxasgizonak —eta euren emazteak— ondo ezagututen dabe Etxe au. Niri asko gustatu jatan; baiñan artez esango deusuet, Liverpoolekoak inpresioño ohea egin eustan. An-go ambientea ohea da, fiñagoa da, itxasgizonentzako egokiagoa.

Rotterdameko Etxeak asko galdu dau, galegoak tronbonadaka bertara joaten asi direnetik ona. Geyenak ez dira itxasgizonak, baserritarrak baiño. Diru apur bategaz urten dabe Galizitik, eta Rotterdamera etorri dira enbarke billa. Geyenak erdi analfabetuak dira eta edukaziño gitxikoak. Enbarkea lortu arte eta dirua dauken bitartean, danak bizi dira Itxas Apostoladuko Etxean. Orrexegaitik, Rotterdameko "Stella Maris" ez da lengoa lakoa, eta itxasgizon askok —ba tezbere ofizialak— ez dabe bertara joan gura, ambiente aretan ez egotearrer.

Bilbaorantz

Iru egunean egon giñean Rotterdamen. Portutik urtenda laster, eguraldi zantarra euki genduan. Don Luis Maria, kapitana, neure lagun aundia da. Don Luis Maria, gizon zuurra da; eta ondo daki bere barkua gobernetan. Amalau urte daroaz bertan, eta aita baten maitasuna daukotsa. Orrexegaitik, denporalea dakarrenean, iges egiten deustso ekatxari eta arribadan joaten da kostako senayaren (1) batera. Orixe egin genduan oraingo bialjan-bere. Ingalaterrako kostan, Torquayko badian (2), sartu giñean, eta 24 ordu egon gintzazan bertan. Nire us-tez, mariñoak arraintzaleak baiño prudentzia geyago dauke itxasoan. Nik ez dakit zelan ez genduan igaz desgraziaren bat euki, Bermeotik Oestafrikarantz atlantiko erditik jo ta tapa joan giñean.


Azkenean, urten dogu Bilbaorantz. Itxaso asko baretu da. Koziñeruak lau apareju bota ditu uretara, eta gaur goizeon atun eder bat atrapatu dogu. Momentu onetan, gabeko bederatzia dira. Bilbaoko bokalean gagoz. Ordu bi geyago, ta Uribitar-teko moillan egongo gara.

Igon dau pratikoak barkura. Astiro astiro goaz. Bilbaoko ibaya, miragarria da gabaz. Egunez baiño askoz miragarriagoa. Zubitik ikusten dodaz alderdi bietako moillak, fabrikak, lantegiak. Oraintxe igaro dogu Deustuko Unibersidadea. Ikusi gaitue portuko langilleak. Ayuntamentuaren parean atrakatu dogu. Gabeko amaikak dira. Berandu da-ta, gaur gaubeon barkuan geratuko naiz. Gabon danori. Agur.

Aita Imanol Berriatua

(1) *Senaya*, erderazko *ensenada*. Bermeotarrak esaten dabe.

(2) *Badia*, erderazko *bahía*. Bermeen erabilten da.



JAKITEKO

BATZUEK

TXORI BALTZA.—“Txori baltza” deitzen deutsie Norteamerikan X15 aeroplanuari. Jakingarriak eta ikusgarriak dira “Txori baltz” onen abilladak. Aeroplanu kaskar bat izanagaitik, inor eldu ez dan tokietaraño sartu da. 75.000 metrotik gora bai, lur indarra baño gorago, eta bere abiadea: 5.617 kilometro. Trimista-abiada orretan 2.500 graduko beroa jasan dau.

* * *

EVERTE DE SOMERVILLE.—Massachusettsko mutiko bat da au. Ille batzuek dirala, tren batek zapaldu eban, eta besoa kendu ganera ondo-ondotik. Baña... gaurko Mediziñiaren abilladea...! Besoa barrero josi deutsie mutikoari, eta, diñoenez, ezin obeto dago.

* * *

ESPIAK.—Jakiña da gaur egunez espiak garrantzi aundikoak direala, batez be armamentu aurreraperan kontuetan. Euretatik entzutsuenak eta sortaldeari kalterik geien egin deutsienak, onerek dira:

Burguess: Inghaterrakoa izatez. Beunek agertu eutsezen rusitarrari Inghaterra ta Norteamerika arteko artu-emonen barriak, aurkitu be jakiteko tokian aurkitzen zan eta.

MacLean: Burguessegaz batera eskapa eban bere aberritik. Gaur Kremlin ondoan bizi da, eta berak egiten eiditu aurretiz, gero Gromyko jaunak parra-parra batean ingeles botaten dituan berbaldiak.

Mitchell eta Martin: Norteamerikanoak dira. Pentagonoan bertan egiten eban biar. 1960-an anka egin eban Rusiara. Mosku inguruan bizi dira, eta, gaur egunez, KGBk ondo zainduta eida goz. Euren aberrian kodigoetan egiten eban biar, eta euren eskue-tatik pasa ziran rusiatarrengana Norteamerikako kodigoak. Au dalata, aldatu dabez amerikanoak euren kodigo guztiak.

Alfred eta Martha, senar-emazteak: Amerikanuak onexek be, eta aberatsak ganera. 1957-an egin eban iges eta gaur Pragan bizi dira. Euren eskuetan eida go Europa al-

deko komunista propaganda guztia, eta baita be espia kontua.

Soblen: Judio-amerikanua. Orain dala ille batzuek il eban bere burua. Bomba atomikaren gauza asko agertu bear izan eutsezen rusitarrari.

* * *

BIOTZ BARRIA.—Edozein ospitaletan egingo eida laster operaziño arrigarri bat: biotz-aldatzea. Bateri berea txarto baiabilko, kendu, jaurti, eta bere ordezt plastikozko barria ipiñi. Antzeko gauzak egin dabez len be. Orregaitik diño Hufnager jakitunak urrango pausoa orixe dala.

* * *

ENTERPRISE.—Munduko “portabiones” aundiena da. Amerikanua. Aitareen egin baño len eun erri autz biurtzeko al dan trasti. 85.000 tonelada eroan leikez batera. Automobil baten abiadea, gitri gora bera. 375 metro dauko luzeran, eta bere alturea ogetabost bizilekuak etxe batena. Bein bakarrrik kargauta, munduari ogei jira emoleu deutsoz. 1.800 telefono ditu bere barruan: eun aeroplanu ganean, eta bere tripea bomba atomikaz beterik dabil. 4.600 soldadu, 1.600 abiadore, tekniko eta ez dakit beste zenbat olakok zainzen dabe. Barko au atomo indarrez dabil, eta bere balioa 444.000.000 dolar da.

* * *

IGETARGIRANTZ.—Azpaldian dabiliz Norteamerikan igetargira arin-arin joateko asmotan tresnak preparentan. Sei urte barru joango eidora, eurek diñoenez. Baña lenengo 20.000 milloi dolar eraldi beariko eida bez. Tresna orren motor nagusiak berak bakarrrik 700.000 kiloko indarra egingo eida. Eta gizona doan kapsula edo dalako orrek, eun tonelada pixtuko eida uz. Aprobak egiten aurten dira asteko. Urtarrillean botako dabe Ranger bat ia zelako tokia dagoan ikusi, eta telebisiñoaren bitartez erakutsi dagan. Bere atzetik joango dira beste guztiak. Ia ba... ia ba... rusoak ez ditezela ariñago joan gero...!

Antonio Zubizarreta.

MUNDAKATIK

*Santa Katalina noiz
Beseguetarako goiz*

Semendian edo azillaren 25-garrenian ospe aundiko Katalin Deunaren jaia dogu.

Mundaka-n beintzat udazkena izan arren, bere otz eta euriak aldian daroazala, jai au beti izan da ospetsuena.

Batez be, arrantzaliak, egun ori eurentzat balitza legez artuten dabe. Alan da izan be. Inok ez daki Katalin Deuna ta itxas-ertzia, nondik eta zelan dagozan alkartuta.

Begira ostein. Ez gure inguruetan bakarrrik, Donosti, Lekeitio eta abar: "Santa Katalina" ugarte, "Santa Katalina" itxas-argia "Santa Katalina" lur-musturra. Ludi guztiko itxas-ertzetan ikusten doguz ugarte, itxas-argi ta lur-musturrrak Katalin Deunaren izenpean.

Zergaitik ete da?

Itxas-ertzak eta bere gauzak Katalin Deunagaz artu-emonik ez dauke.

Katalin, emakumea izan arren, jakitun aundia zan; Teoloji ta Filosofian irakaslea zan da...

Arraintza ta itxas-ertza-kaz, zer dauko zer ikusirik?

Ez dau eukiko, baña alan da. Urrun joan barik emen daukagu Mundaka-ko itxas-ertza-ren toki politenean, "ermintxa" edo txador txiki bat bere babespean jarrita. Gazteli edo guda-ormaren erdian. Ekatz egunetan, itxasoak gogorren joten daben tokian. Baña, udan, itxas-aize ta kresal-sunda gozuenak artuten diran lekuan.

Oraingo "ermintxa" onen aurrekoa zaar bat zan, eta zaarra zan legez, lurra jo eban.

Bertan barruan, Aita Kurtzio Deunari otoi egiten Maria Anton Mendezona andratxoa zegoan.

"Ermintxa-ren" tellatu dana, bere ganera jausi iakon eta, mirariz; zauri txiki bat be ez eban artun.

Barria erastuteko, txanponak bear ziran eta txanpon oneik batuteko Mundaka-ra eta mundakarrak bizi ziran munduko toki guztietara eldu ziran eske-deiak.

Etxeita-tar J. Imanol olerkari ospetsuak bere bertsuetan edestuten deuskuz barri oneik:

I

Santa Katalina da,
Urtian-artian
Semendiko illaren
Ogeta bostian.

V

Triste zagoz Birjiña
Orrelan kanpuan
Imingo zara laster
Zu, zeure lekuan.

IX

Jornal barik «tenpluan»
Blar egitera,
Ezin artu leiteke
Jaungoiko maitea

II

Aazfuta euki barik
Beste urte guztian
Euki bear genduke
Biotzen erdian.

VI

Ermita barriagaz
Zeure gazteluan,
Maite izango zara
Betiko muncuan.

X

Ba-kigu Mari Anton
Zure «istoria»
Laster ikusiko dozu
Ermita barria.

III

Beti zagoze egoten
Barrian kanpuan,
Arrantzaletre tristien
Peligro lepuan

VII

Asi «Bastarretxen» da
«Pradua» tartera,
Ibilli dira Mundaka-n
Aterik atera.

XI

Zeruko atletan
Doña Saturnina,
Itxaroten daukozu
Santa Katalina.

IV

Jausi zan ermitia
Lurrera antxiña,
Batera ta bestera.
Or zabiltz Birjiña.

VIII

«Probe» ta aberats
Guztiak batera,
Zeure «Tenpluen» billa
Birjiña ederra.

XII

Manilan bere dauke
Zure memoria,
Egiteko diñoe
Ermita barria.

XIII

Entzun erriko seme
Indietakoak
Belauniko para-ta
Eiten erreguak.

XIV

Nun dau mundu onetan
Olako jentia?
Zuzen topako dabe
Zeruko bidea!

Bertsu onek Lopategi-tar Norbertari entzunekoak dira, berak buruz artu ebazan

here gaztaroan.

MAIXU

Buroko miñak kentzeko izkirimiriak

TXOMIN BARBERU-GAZ BERBETAN

- Ulea ebagiteagaitik, zenbat eskatzen dozu?
- Pezeta bi.
- Ta bizarra kentzeagaitik?
- Pezeta bat.
- Ba... orduan buruko bizarra kendu eidadu.

UME BIREN AUTUA

- Ze izen daukozu?
- Mateo, baña etxean, domixtikun egiten dodanean, Jesus esaten deuste.

ESKOLAN

Maixuak: —Zure aitak eun arrautza badaukoz ta larogetamar bakarrik onak urten, zenbat galduko dauz?

Dendariaren semeak: —Bapez, jauna, danak salduten ditualako.

EZETZ IGERRI

- Ezetz igerri zein dan gizonik jakintsuena?
- Eztakit ba.
- Taxistea, karrera bat egindakoa, beste bat asten daualako.

KAFIA ARTU EZ

- Eztozu kaferik artzen?
- Ez ba; artzen dodanean ez dot lorik egiten-da.
- Kontxo, kontxo! Niri aldrebes gertatzen iat: lo egiten dodanean, ezin kaferik artu.

ASTOA ATARATEN

- Asto bat erre kara jausiko balitz, zelan atarako zeunke?
- Kordel bategaz.
- Ez, mutil.
- Idi pare bategaz.
- Ezta.
- Zelan ba?
- Bustita!

ESNEA TA KAFIA

- Arek dira esnea emoten daben beiak?
- Zuri arek, bai.
- Ta baltzak?
- Arek, kafia-edo emongo dabe.

SAL-EROSKETAK

- Zer nai dozu?
- Zapata pare bat, baña buruko miñik egiten eztabenak.
- Zapatak buruko miña?
- Bai, gizona! Nire andreak, asarratuten danean, burura jaurtiten deustaz-da.

ARDOTARAKO DIRUA

- Gurean aste guztietan diru asko doa ardotan.
- Zergaitik ez dozue egiten gurean egiten doguna?
- Zer egiten dozue ba?
- Erdia ardoa artu, ta erdia ura.
- Ardolari ura botata?
- Kia! Nik ardoa edaten dot, ta andreak ura.

IA DAKIZUN

- Zenbat gerra izan ebazan Prantziak XVII-garren gizaldian?
- Sei, jauna.
- Ia, esan bana-banan.
- Bat, bi, iru, lau, bost, sei.

EIZTARIA TA PERU

- Ollagorretan dabil gizon bat. Ta tontortxu batera arrapalaka elçu, ta ba-diñotso arta-jorran diardun Peru-ri:
- Ikusi dozu ollagor bat emetik egazean?
- Ollagor bat, ezta?
- Bai, gizona.
- Eskoako egca zaurituta-edo eroan dauana?
- Bai.
- Gorantza bidea-edo artu dauana?
- Bai, gizona, bai.
- Ba... ez tot ikusi.

MOZKORTI BI BERBETAN

- Bart ameseta ikaragarri bat euki dot.
- Zein euki dozu ba?
- Biñagrea edaten nengoala.
- Txarragoa euki dot nik.
- Zein gero?
- Ura edaten nebala.